Newsletter-ak maketatzeko eta bidaltzeko zerbitzurako Baldintza Teknikoen Plegua

2026/2/3

AURKIBIDEA

1.HELBURUA 2

2.ZEHAZTAPEN TEKNIKOAK 2

2.1. Newsletter-ak maketatzea 2

2.2. Bidalketa-probak 3

2.3. Bidalketaren xede diren erabiltzaile-taldea kargatzea 3

2.4. Egindako bidalketaren inpaktuari buruzko txosten analitikoa sortzea 3

3.BALDINTZA BEREZIAK 5

3.1. Zigorrak 5

3.2. Segurtasun- eta konfidentzialtasun-baldintzak 5

3.3. Jabetza intelektuala 6

1. HELBURUA

Plegu honen helburua da newsletter-ak maketatzeko, hartzaileak kargatzeko eta horiei bidaltzeko zerbitzuak kontratatzea.

2. ZEHAZTAPEN TEKNIKOAK

Bizkaiko Foru Aldundiaren hainbat arlotan dauden komunikazio-beharrak direla eta, urtean 25 newsletter inguru kudeatzen dira. Kudeaketa horrek dakartzan zereginak:

- Testu-edukietatik eta irudietatik abiatuta, newsletter-a maketatzea
- Maketatutako newsletter-a baliozkotzeko testak
- Erabiltzaile hartzaileen kolektiboa kargatzea eta newsletter-a bidaltzea
- Egindako bidalketaren eraginari buruzko txosten analitikoa sortzea

Newsletter-a kudeatzeko erabiliko den tresnak Brevo edo antzekoa izan behar du, eta zerbitzariak Europar Batasunean kokatuta egon behar dira, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren (DBEO) eskakizunekin bat eginda. Nolanahi ere, lizitatzaileak bere gain hartu beharko du tresna horren kostua zerbitzua ematen den aldian.

2.1. Newsletter-ak maketatzea

Newsletter-ak gutxienez atal hauek izango ditu:

- Goiburua: Zugaztel MP SAk emango duen infografia bat egokituko da; seguruenik, 1200 pixeleko zabalera izango du eta 72 ppp-ko bereizmena.

- Edukia: Artikulu/albiste garrantzitsuak jasoko ditu, eta horietako bakoitzaren izenburua, deskribapen laburra eta irudia izango ditu. Hauek izan daitezke irudien formatuak: JPEG, PNG edo GIF. Material hori aldez aurretik partekatuko du Zugaztel MP SAk. Kasu batzuetan, Zugaztelek beste formatu edo url batzuetako edukiak Newsletter-aren edukian sartzeko eskatu ahal izango du.

- Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren banda: Datuen babesari lotuta jaso beharreko mezua Zugaztel MP SAk partekatuko du aldez aurretik.

Nolanahi ere, edukien eskema hori gutxienekoen erreferentzia da, zerbitzua ematen den bitartean horren gainean aldaketak edo hobekuntzak eskatu ahal izango baitira. Bizkaiko Foru Aldundiaren parte-hartzeari buruzko newsletter-aren kasuan, Zugaztel zerbitzua ematen hasten denean, newsletter-aren diseinu bat proposatuko da. Diseinu horrek aldaketak izan ditzake newsletter-a egituratzeko aurretik adierazitako oinarrizko erreferentziekiko.

Bidalketak gaztelaniaz eta euskaraz egin beharko dira, eta bi eratara egin ahal izango dira:

- Bi bidalketa, eduki bera duen hizkuntza bakoitzeko bana
- Bidalketa bakarra, lehenik euskarazko edukia izango duena eta ondoren gaztelaniazkoa. Bidalketa-mota horrek hizkuntza-hautagailu bat izan behar du newsletter-aren goiko aldean hartzaileak nahi duen hizkuntza hauta dezan.

2.2. Bidalketa-probak

Newsletter-a maketatu ondoren, Zugaztel MP SAk zehaztutako hartzaileei 5 test egin beharko zaizkie gutxienez. Proba horietatik abiatuta, maketazioaren osotasuna baliozkotuko da, eta egokitzat jotzen diren zuzenketak edo hobekuntzak proposatu ahal izango dira.

2.3. Bidalketaren xede den erabiltzaile-taldea kargatzea


Newsletter-a bidaltzen den bakoitzean, Zugaztel MP SAk ezarriko du kanpaina bakoitzean kargatu beharreko hartzaileen kolektiboa. Adjudikaziodunak epe laburrean edo antzekoan kargatu beharko du talde hori, bidali ahal izateko. Kargatu ondoren, eta Zugaztel MP SAk dagokion agindua eman ondoren, newsletter-a bidali behar da.

2.4. Egindako bidalketaren eraginari buruzko txosten analitikoa sortzea

Newsletter-a bidaltzen den bakoitzean, inpaktu-txosten bat egin behar da. Txosten horrek, gutxienez, neurri hauek izan behar ditu:

- Bidalketaren eguna
- Bidalketaren ordua
- Brevo edo antzeko batean kargatutako helbide elektronikoen kopurua
- Newsletter-a jaso duten helbide elektronikoen kopurua
- Errebote bigunaren bidez jaso ez diren helbide elektronikoen kopurua
- Errebote gogorraren bidez jaso ez diren helbide elektronikoen kopurua
- Newsletter-aren irekiera bakarren kopurua
- Irekitze-tasa
- Newsletter-aren esteketarako klik bakarren kopurua
- Klik-tasa
- Baja-eskaeren kopurua
- Baja eskatzen duten helbide elektronikoak
- Irekitako azken aldia

Horrez gain, irekitako aldien eta klik guztien denbora-bilakaera jasotzen duen grafikoa ere eman behar da:



Azkenik, txosten analitikoak taula bat izan beharko du, klikatu diren estekekin. Taula horretan, klik bakarren kopurua eta klik-tasa adieraziko dira.

ENLACES	CLICS ÚNICOS	NÚMERO DE CLICS	TASA DE CLIC
https://web.bizkaia.eus/documents/842933/5312190/EUS_Informe_BizkaiaEgiten2021.pdf/da805202-ea52-30d5-f04e-10334540d329?t=1649153875144	2	2	12,50%
https://web.bizkaia.eus/eu/web/comunicacion/berriak/-/news/detailView/22651?_News_redirect=%2Fes%2Fparticipacion-ciudadana-y-social%2Factualidad	1	1	6,25%
https://web.bizkaia.eus/eu/eztabaida-foroa	1	1	6,25%
https://web.bizkaia.eus/eu/herritarren-eta-gizartearen-partaidetza/araudi-garapenaren-partaidetza-prozesuak	1	1	6,25%
https://web.bizkaia.eus/documents/842933/5312190/Informe_BizkaiaEgiten2021.pdf/0cc7d96f-2a42-8c93-1183-d6d75a2a1363?t=1648724322885	2	2	12,50%
https://web.bizkaia.eus/es/web/co	3	4	25%

Zugaztel MP SAk eskatu ahal izango du metrika berriak sartzeko inpaktu-txosten analitikoan.

3. BALDINTZA BEREZIAK

3.1. Zigorrak

Maketazioari, hartzaileak kargatzeari, test probei eta newsletter-a bidaltzeari lotutako zeregin horiek gehienez ere 2 egun balioduneko epean egin beharko dira, beharrezko dokumentuak bidaltzen direnetik aurrera (maketaziorako edukiak eta hartzaileak). Atzeratzen den egun baliodun bakoitzeko, Zugaztelek % 2ko zigorra ezarri ahal izango du newsletter-aren fakturazioaren zenbatekoan.

3.2. Segurtasun- eta konfidentzialtasun-baldintzak

Zugaztelek, hala badagokio, bere sistema informatikoetarako sarbidea emango du, aldez aurreko prozeduren eta baimenen arabera, eta kontratu honetan zehaztutako zerbitzuak gauzatzeko behar den informazioa eta dokumentazioa emango dio adjudikaziodunari. Enpresa adjudikaziodunak ezin izango du informazio hori Oinarri Teknikoen Plegu honetan jasotakoez bestelako helburuetarako erabili, eta konpromisoa hartu beharko du informazio hori osorik edo zati batean ez ateratzeko, lagatzeko, argitaratzeko edo saltzeko, ez euskarri informatikoan, ez paperean. Emandako informazioaren euskarriak itzuli beharko ditu, eta erabat ezabatu ekipo informatikoetatik (halakorik balego), zerbitzua amaitutzat ematen denean.

Adjudikaziodunak bere gain hartu beharko ditu konpromiso horiek, eta erreferentziazko zerbitzua ematean eskuratzen dituen informazio-sistemei dagozkien segurtasun-arloko arauak bete beharko ditu, kontratua indarrean dagoen bitartean aplikatu beharreko legeriaren arabera. Enpresak eta haren lantaldeak erabateko konfidentzialtasuna eta zuhurtzia gorde beharko dute kontratua betetzean ezagutzen duten edozein daturi buruz, bereziki datu pertsonalei buruz. Datu horiek ezin izango dituzte kopiatu edo erabili oinarri teknikoen plegu honetan jasota ez dauden helburuetarako, eta ezin izango dizkiete beste batzuei laga, ezta gordetzeko ere.
Adjudikaziodunak klausula bereziak bete beharko ditu, eta, zehazki, baldintza berezien pleguaren “11.3. Datu pertsonalen babesa” eta “11.5. Informazioaren segurtasuna” apartatuak.

3.3. Jabetza intelektuala

Enpresa adjudikaziodunak honako klausula hauek onartzeko konpromisoa hartzen du:

- Egindako lanarekin lotutako jabetza intelektualeko eskubideak Zugaztelenak baino ez dira izango. Hala, jabetza intelektualeko eskubideak babesten duen edozein produktu edo azpiproduktu ezin izango da erabili dagokion eremutik kanpoko beste helburu batzuetarako, Zugaztelen idatzizko berariazko baimenik gabe. Enpresa lizitatzaileak fitxategi guztien iturri guztiak eta erabilitako programazio-baliabideak eman beharko dizkio Zugazteli.
- Lana gauzatu bitartean sortutako dokumentazioa Zugaztelena baino ez da izango, eta enpresa adjudikaziodunak ezin izango du gorde, ezta haren kopiarik lortu edo hirugarrenei eman ere, Zugaztelen idatzizko berariazko baimenik gabe. Baimen

hori, hala badagokio, enpresak formalki eskatu beharko luke, lortu nahi duen helburua adierazita. Paragrafo honetan xedatutakoa kontratatutako lana egin dela frogatzeko gordeko da. Zugaztelek berariaz baimentzen du lan honen emaitzak erreferentziatzat eta Zugaztelentzat etorkizunean egin beharreko lanen oinarritzat erabiltzea.

- Enpresa adjudikaziodunak Zugaztelek emandako informazioaren konfidentzialtasuna bermatu beharko du, eta bereziki datu pertsonalei buruz indarrean dagoen legeria bete beharko du. Enpresen kolaboratzaile guztiek konpromisoa hartzen dute erabateko sekretu profesionala gordetzeko zerbitzua ematean ezagutzen dituzten datu, informazio eta dokumentuen inguruan, horiek emateko modua edozein dela ere (ahozkoa edo idatzizkoa). Eremu horren barruan esleitu zaizkien atazak egiteko ezinbestekoak diren laguntzaileek soilik izango dute informazio hori eskuratzeko aukera. Horiei guztiei jakinaraziko zaie eskuratzen duten informazioa guztiz konfidentziala eta isilpekoa dela.

Era berean, enpresa adjudikazioduna behartuta dago Zugazteli berehala jakinaraztera lanak gauzatzean informazioaren segurtasun- eta babes-sistemaren akatsekin edo ihesekin lotuta hauteman daitekeen susmo oro.

Kanariar Uharteak 21, 3.solairua

48015 BILBO (Bizkaia)

Tel - Telf: (+34) 94 656 7717

Faxa - Fax: (+34) 94 401 2348

mailto:erosketakzugaztel@bizkaia.eus

http://zugaztel.bizkaia.eus

- Herritarrei arreta eskaintzeko kanal anitzeko azpiegituren diseinua eta garapena / *Diseño y desarrollo de infraestructuras multicanal para la atención a la ciudadanía*
- Dokumentuei alta eman eta horiek grabatu nahiz digitalizatzea zerbitzua / *Servicio de alta, grabación y digitalización de documentos*
- Herritarrei kanal orotako arreta ez-presentziala eskaintzeko zerbitzua / *Servicio de atención no presencial omnicanal a la ciudadanía*
- Marketing digitaleko zerbitzua: sare sozialen eta eduki digitalen koordinazioa, plangintza, argitalpena, monitarizazioa eta jarraipena / *Servicio de marketing digital: coordinación, planificación, publicación, monitorización y seguimiento de social media y contenidos digitales*